

Sanjuanetan larrak

Euskaldunon Egunkaria, 1996-06-22: 2.

Andoaingo festak asko ziren, herria bera luzea zelako, seguraski, eta auzo bakoitzak berea nahi. Hasi, Zumea kalean hasten ziren maiatzaren 3ko Santakruzetan, Gurutze Sainduko ermita inguruan. Gero, Sanjuan herriko jai nagusiak, kaxkuan, San Martingo eliza inguruan, ekainaren 24, eta berehala Sanpedroak Kaletxikin. Ospitaletik gertu, Uztaialak 31, Saninazioak Etxeberrietako auzoan, futbol zelaian. Sanxtebanak abuztuaren 3an, mendiko lehen jaiak, hemen ere ermita erdian. Buruntzako Sanrrokeak 16an. Irailaren 8an Sorabilla auzoko eliza inguruan, oilasko joko eta guzti. Baina herriko jaiak, jai nagusiak Sanjuanak ziren, Hernanin eta Tolosan bezala.

Sanjuanek zuten xarma "larrak" deitzen genien sasi lehorrak ziren, bezperako sua piztutzeko bildu behar genituenak! Hemen ere auzo bakoitzak bere sua piztu behar zuen, eta hilabete aurretik hasten ginen baserri gurdibideetan zeudenak ikusten eta gaez biltzen ere. Arazoa, sua handia egin nahi genuela eta denontzat nahi adina sasi ez, eta gaez elkarri osten hasten ginen. Nik Zumeako arazoak ezagutzen ditut, Etxeberrietakoak etortzen ziren lapurretara! Gu ez ginen haiengana joaten, ausartzen ez ginelako, baina gureak gordetzeko goardiak egiten genituen, eta bidean alanbreak jarri ere egiten genituen, lapurrak ilunpetan erori zitezen; gerran bezala!

Gerra haietan ez zen, halere, inor hil.

Hau geroko kontua da.